



2012KO MAIATZAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko maiatzaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen dira 2012ko apirilaren 26an egindako ohiko bilkurako eta 2012ko maiatzaren 17an egindako ez-ohiko aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA 4. FASEA LANEN 9. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza dararamaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Eva Caceres arkitektoa eta Nagore Lasa arkitekto teknikoek 4. faseko bederatzigarren obra-egiaztagiria luzatu dute. 4. faseko 9. obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMOTakoa (127.685,75 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Alkateak esaten du lanak aurrikuspenen arabera dihoaztela. Baita ere esaten du, aurreko osoko bilkuran azaldutako zalantzak batzordean argituta gelditu zirela eta gainkargua iazko obra geldituta egon izanaren ondorioa dela.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du fase honetan desbiderapenik ez dagoela esaten dela baina badirudi badagoela, obra geldik egon denekoa hain zuzen, eta hori ondo espli-



katzea edo azaltzea nahiko luketela. Gaineratzen du ez dutela esan nahi aurka daudenik, eta obra-egiaztagiri honen alde bozkatuko dutela.

Alkateak erantzuten dio kontuan hartzen duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Albisu zinegotziak esandakoa osatuz esaten du batzordean ematen diren esplikazioetan gaia hobeto esplikatzea dela eskatzen dutena.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra esta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, eta aho batez, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko bederatzigarren (9.) obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- GOIEKIKO 2011 KONTUEN ONARPENA.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2011ko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alde bozkatuko duela. Gaineratzen du eskatzen duela hurrengoan dokumentazioa gazteleraz ere bidaltzeko.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du kontuak auditatu daudela eta alde horretatik eragozpenik ez legokela. Esaten du baita ere GOIEKI sortu zenetik akordio politiko bat egon dela alderdi politiko guztiak ordezkaturik egoteko eta legealdi honetan akordio hori hautsi egin dela eta beraiek bigarren alderdia izanik kanpora utzi dituztela eta ez daudela mahaian, eta egoera honen salaketa moduan aurka bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du EAJk esandakoarekin bat egiten duela eta gehitzen du bere aldeko botua txostenari onarpena dela soil soilik.

Alkateak (Bildu) esaten du baietz, GOIEKiko administrazio kontseiluaren osaketakoan nahiko tirabiratsua izan zela eta une honetan hausnarketa egiten ari dela gai hau eta denen partehartzea nola bideratzearen inguruan.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko zortzi (8) botu (Bildu, PSE-EE) eta aurkako bost (5) botuz (EAJ) GOIEKiko 2011ko kontuak onartzea erabakitzen du.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik pertsona batek EAJko ordezkariari zuzentzen zaio eta esaten dio bera ez dela inor berari farrak ez egiteko esateko.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez berak ez diola farrak ez egiteko esan, bai egia dela aipamen bat egin duela eta aipamen hori gaizki hartu baldin badu, barkatzeko eskatzen diola.



VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.



A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.